

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa  
Fundación Museo De La Paz De Gernika



**GERNIKA-LUMO**  
Ciudad de la Paz. Bakearen hiria  
City of Peace. Ville de la Paix  
Premio UNESCO Saria.2002-2003




## 1. ERAKUSKETA AURRETIK

1.1 **Ondarearen berreraikuntza gerraondoan: Regiones Devastadas Gernikan** erakusketa bisitatzera joan aurretik, ikasleek beraien aitona-amona edo adin nagusiko pertsonen Gernikako berreraikuntza nola egin zen galdetuko diete.

- Galderak prestatu beharko dira eta ondoren elkarrizketatzera joango dira. Ahalegindu elkarrizketatuaren baimenarekin elkarrizketa grabatzen (audioa edota bideoa).
- Adibidez: Noiz hasi ziren berreraikitzen? Nortzuk lan egin zuten berreraikuntzan? Zeintzuk izan ziren eraikitzen ezagutu zenituen eraikinak? Non bizi izan ziren garai horretan?...


1.2 Horrez gain, beraien herrian urte haietan eman ziren gertakariez zer oroitzen duten galdetuko diete: herrian eman ziren aldaketak, biziki gogoratzen dituzten gertakariak edota anekdota pertsonalak.

1.3 Herriko antzinako argazkiak lortu beharko dituzte (Gernika bonbardatu ostetik 1990. urtera esaterako): etxean daudenak, interneten edota liburutegian kontsultatuz.




## 2.1 Irakurri 1. panela eta erantzun hurrengo galdera hauek:

**“Gerra zibila: kultur-ondarearen suntsiketa eta berreraikuntza”**




- Nola deitu zen Espainia berreraikiko zuen erakunde publikoa?
- 1939ko irailaren 23ko legeak “Herri adoptatuen” programa sortu zuen. Zer esaten zuen lege horrek?
- Nola lortu zuten lan-eskua gerra osteko Espainian? Estilo herrerianoaren bereizgarriak erabili ziren estatuko eraikin ofizial askotan. Zein zen honekin eman nahi zuen mezua?

## 2.2 Irakurri 2. panela eta erantzun hurrengo galdera hauek:



**“Regiones Devastadas: proiektu ikoniko batzuen adibideak”**

- Zeintzuk izan ziren Espainia mailan Erregimenaren arreta berezia izan zituzten hiri sinbolikoak?
- Zergatik?




Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa  
Fundación Museo De La Paz De Gernika



**GERNIKA-LUMO**  
Ciudad de la Paz. Bakearen hiria  
City of Peace. Ville de la Paix  
Premio UNESCO Saria. 2002-2003

### 2.3 Irakurri 3. panela eta erantzun hurrengo galdera hauek:



**“Regiones Devastadas: Euskadiko beste adibide batzuk”**

- Zeintzuk izan ziren Euskadiko hiri eta herri adoptatuak? Inaugurazio ekitaldietan, zein zen protokoloa, zer egiten zuten agintariek?

### 2.4 Irakurri 4. panela eta erantzun hurrengo galdera hauek:


**“Propaganda, indarkeria kulturala eta biziraupena”**



- Gernikaren kasuan, nola lortu zen erresistentzia eta oroimen ekintzak egitea?

### 2.5 Irakurri 5. panela eta erantzun hurrengo galdera hauek:

**“Regiones Devastadas-en zeregina Gernikan”**



- Falangek antolatu zuen 1937ko erakusketaren arabera, zer eraiki nahi zuten Gernikan?



- 1939ko berreraikuntza planen arabera, zer erabaki zen Gernikan egitea?

- Noren esku utzi zuten bereziki sinbolikoak ziren obren ardura?

- Noiz inauguratu zen Foruen plaza?

- Zer gertatu zen eraikin konkretu batzuekin (merkatua, San

Juan eliza, pilotalekua ...) eta bertoko arkitektura ezaugarriekin (balkoi itxiak)?

- Berreraikuntzan zer nolako aldaketak ekarri zituen herrian?
- Zertan joan ziren Gernikako udaleko ordezkariak birritan El Pardo Jauregira?

### **3. ERAKUSKETA OSTEAN**


3.1 Gernikan bizi den norbaiten etxea aukeratu (ahal dela Gernika erdigunekoa izan dadila) eta galdetu noiz eraiki zen. Ba al dakite eraikin horren historia (nork eraiki zuen, zein urtetan, ...)?

3.2 Aukeratu duzun eraikin horren argazki zaharrak erabiliz

4

2015/04/01 - 2015/10/04  
**ONDAREAREN BERRERAIKUNTZA  
GERRAONDOAN**  
"REGIONES DEVASTADAS" GERNIKAN





Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa  
Fundación Museo De La Paz De Gernika



**GERNIKA-LUMO**  
*Ciudad de la Paz. Bakearen hiria*  
*City of Peace. Ville de la Paix*  
Premio UNESCO Saria.2002-2003

(baldin badituzu), argazkia atera zeneko tokia eta norabidea aurkitu, puntu horretan argazki zaharra begi aurrean jarri eta argazkiko irudiak gaur egungo irudiarekin bat egiten saiatu eta argazkia atera (argazki honetan egiten den bezala).

### 3.3 Museoak sortu duen MyHistro programan

(<http://www.myhistro.com/>) sartu eta denboraren lerroa zabalduko zaizu. Programa honetan sartu behar dituzu aurreko ariketetan lortu duzun informazioa (eraikin konkretu horren eraikuntza data, nork eraiki ...) eta egindako argazkia. Google maps ere erabil dezakezu eraikina markatzeko.

3.4 Nahi izanez gero, egindako lana (grabaketak, argazkiak ...) museora bidal dezakezu ([hezkontza.museoa@gernika-lumo.net](mailto:hezkontza.museoa@gernika-lumo.net)). Material hori, Gernikako Bonbardaketari buruzko Dokumentazio Zentroan gordeko da eta baimena emanaz gero, kontsultarako jarriko da.

3.5 Azkenik, batutako informazio guztia klasera eraman eta partekatu egingo da.